BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5695

EBAZPENA, 2011ko urriaren 18koa, Herri Administrazioko sailburuordearena, Konekta Zaitez@ Banda Zabala izeneko egitasmoaren barruan, banda zabaleko interneten sartzeko diru-laguntzak emateko dena.

Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduak (EHAA, 147. zk.), Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko otsailaren 18ko Aginduak (EHAA, 57. zk.) aldatutakoak, Konekta Zaitez@Banda Zabala Proiektuaren barruan, interneterako banda zabaleko sarrera-zerbitzuak emateko laguntza-neurriak ezartzen ditu.

Aipatutako aginduan, diru-laguntzetako programa bat eratzen da. Diru-laguntza horien xedekoak dira, hain zuzen ere, banda zabaleko internetekin konektatzeko, alde batetik, erabiltzaileak behar duen terminal-ekipoa erostea eta, bestetik, frekuentzia libreetako (Wifi edo antzekoak) bandako puntu-puntu anitzeko hari gabeko teknologietan oinarritutako instalazio kolektiboak eskuratzea. Halaber, diru-laguntza horiek emateko prozedura eta irizpideak arautzen dira eta laguntzen zenbatekoa eta berau aldatzeko prozedura ezartzen dira.

Herri Administrazioko sailburuordearen 2011ko ekainaren 22ko Ebazpenaren bitartez, 2011ko ekitaldirako laguntzei dagokienez guztira aurreikusi den zenbatekoa onartu da. Ebazpen horretan guztira ezarri den zenbatekoa laurehun eta hamar mila (410.000) eurokoa da. Ezarritako konponbide teknologikoari dagokionez, erositako ekipo terminal bakoitzeko aleko zenbatekoa berrehun eta laurogeita bat (281) eurokoa izango da.

Halaber, esandako agindu horren 10. artikuluak Itelazpi izendatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren erakunde laguntzaile bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onesteko den azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 52. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz eta erakunde laguntzaileak egindako proposamena ikusi ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Banda zabaleko Internetera sartzeko diru-laguntzen esleipena onuradunei jakinaraztea, Konekta Zaitez@Banda Zabala izeneko egitasmoaren esparruan, honi erantsita doakion eranskinean jasota dauden kopuruetan.

Bigarrena.– Aipatutako 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 13.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Itelazpi baltzu publikoak izango du onuradunak jakinarazteko eta operadoreari horien konturako diru-laguntzak ordaintzeko ardura.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari hilabeteko epe barruan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko eta baita ere erakunde onuradun bakoitzari honako honen berri emateko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 18a.

Herri Administrazioko sailburuordea,
M.ª ELENA PÉREZ BARREDO.

ERANSKINA

KONEKTA ZAITEZ@BANDA ZABALA

ONURADUNEN ZERRENDA – ESLEITUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

Eskatzailea		Diru-laguntza
1	Abasolo Lekue, Rubén	281
2	Agirre Billarabeitia, Jugatz	281
3	Agirre Dorronsoro, Ander	281
4	Aitzabal Arantzazuko Auzo Etxea	281
5	Alonso Pérez, Concepcion	281
6	Altube Arrastio, Joseba	281
7	Aranguena Oar-Arteta, Aintzane	281
8	Aretxalde Seco, Mikel	281
9	Arin Larrañaga, Tomas	281
10	Arizmendiarrieta Arrieta, Jaime	281
11	Arratibel Garaiar, Gemma	281
12	Arzuaga Mancisidor, Maialen	281
13	Aurrekoetxea Cosgalla, Joana	281
14	Aurrekoetxea Goitia, Jesús María	281
15	Avaf Servicios SLU	281
16	Badiola Uria, Jesús	281
17	Balzola Suinaga, María Francisca	281
18	Barrena Alonso, Ruth	281
19	Biotermiak Zeberio 2009 SL	281
20	Bordagarai Mendibil, Xabier	281
21	Bueno Villanueva, Jose Alberto	281
22	Caja Vital (Elvillar)	281
23	Cantera Harrimar SL	281
24	Chappel . Raymond	281
25	De Mandialdua Pinedo, Daniel Iñaki	281
26	Del Campo Prieto, Jose María	281
27	Egia Arregi, Gorka	281
28	Eguiguren Arrue, Andeka	281
29	Elezpuru Abio, Mari Carmen	281
30	Elgezua Larrañaga, Nerea	281
31	Elorza Argote, Alberto	281
32	Errazkin SL	281
33	Etxebarria Gorospe, Esti	281
34	Fernández Centeno, Luis	281
35	Fernández de Mendiola Fernández, Francisco José	281
36	Fernández Quintana, María Asunción	281
37	Ganadería Artea SL	281
38	Garaipen Victoria Apustuak SL	281
39	Garate Alkorta, Asier	281
40	García Aguirrebengoa, María Victoria	281
41	Garzaron Gorriz, Yolanda	281
42	Giménez Sánchez, Rosa María	281
43	Gisasola Pérez, Irantzu	281
44	Gogenola Korta, Goregi	281
45	Goimen Elkartea	281
46	González Redondo, Jorge	281
47	Gorostiaga Uriarte, Zigor	281
48	Ibáñez Andino, Miguel	281
49	Ibáñez Angulo, Pedro	281
50	Idiri Goirigoizarre, Itxazne	281
51	Irazusta Arzallus, Aintzane	281
52	Itsasmendi Investments SL	281

Eskatzailea		Diru-laguntza
53	Izki Jatetxea	281
54	Lallana García de Garayo, María Josefa	281
55	Le Klip Management SLL	281
56	Legarreta Markaida, Itziar	281
57	Lijo Arnaiz, Juan Carlos	281
58	Llano Arana, Joseba	281
59	Loidi Yarza, Ainhoa	281
60	López Aguirsano, Iñaki	281
61	López Apiñaniz, Gloria	281
62	López Luperena, Ignacio	281
63	Maderas Orue SA	281
64	Mancomunidad de la Merindad de Durango	281
65	Mendigoikok SA	281
66	Metola Crespo, Penélope	281
67	Moreno Reoyo, Jesús Ramón	281
68	Mujika Arakama, Jokin	281
69	Murga Urtaran, Cesar	281
70	Murua Gainza, Antonio	281
71	Mzo Fontanería-Gas-Calefacción-Construcción SL	281
72	Neumo-Egmo Seain SL	281
73	Nichita . Ivan	281
74	Nieva Montejo, Félix	281
75	Odriozola Oyarzabal, Asier	281
76	Okamika Mendiguren, Markel	281
77	Oleaga Iturbe, Jon	281
78	Ormazabal Askasibar, Félix	281
79	Ortega Puente, Rosa Milagros	281
80	Oteiza Goikoa EZ	281
81	Pérez Gallarreta, Nikolas	281
82	Remar Alava	281
83	Restaurante Garai SL	281
84	Rodrigo Alonso, Eva	281
85	Romay Martínez, Inmaculada	281
86	Rua Mayor, Jonnhy Alberto	281
87	Ruiz Dañobeitia, Nieves	281
88	Sáenz de Urturi Abajo, David	281
89	San Miguel Viguri, Iker	281
90	Sanchiz Yrazu, Juan Carlos	281
91	Santamaría Ortiz de Zarate, Javier	281
92	Sarasola Errea, Jose Antonio	281
93	Simona Gunea	281
94	Soluciones Técnicas Gasteiz SL	281
95	Suero Aramburu, Begoña	281
96	Uriarte Badiola, Saioa	281
97	Urruma Gallego, Arantxa	281
98	Vivanco González, Alicia	281
99	Vivas León, Miriam	281
100	Zabala Sáenz, María Dolores	281
101	Zamalloa Astobiza, Gorka	281
102	Zubizarreta Etxegintza SL	281